

Egitura berria erakundean 2023ko Kudeaketa Planari begira

## EROSKIK BERRITU EGIN DU ZUZENDARITZA KONTSEILUA

- Zuzendaritza organoa, Rosa Carabel EROSKIko CEOa buru dela, partzialki berritu da eta beste bi zuzendari berri gehitu dira: Hipermerkatuak eta Supermerkatuak

Elorrio, 2022ko irailaren 22a.- [EROSKI](#)k berritu egin du partzialki Zuzendaritza Kontseilua 2023ko Kudeaketa planeko helburu eta erronketara egokitzeko.

Rosa Carabelek zuzentzen du Zuzendaritza Kontseilu berria, EROSKIko CEOak, eta bederatzi sailletako zuzendaritzak bilduko ditu. Horietako bi berriak dira Zuzendaritza Kontseiluan. Supermerkatuetako eta Prozesuen zuzendaritza da horietako bat, Alberto Madariaga buru duena, eta Hipermerkatuetako eta *Online* dendako zuzendaritza bestea, Iñigo Ariasek gidatua; orain arte, Sare Komertzialeko zuzendaritzaren barne zeuden arlo horiek. Horrekin batean, Berrikuntza eta Informazioaren Teknologiako zuzendaritzak Logistika saileko ardura ere hartuko du, eta Enrique Monzonisek jarraituko du buru gisa.

Honako kide hauek ere gehituko zaizkio Zuzendaritza Kontseiluari: Javier Amezaga zuzendari Korporatiboa, Beatriz Santos zuzendari Komertziala, Javier España Garapeneko zuzendaria, Eva Ugarte Marketin Estrategikoaren eta Bezeroen saileko zuzendaria, eta Iñigo Eizagirre zuzendari Soziala, aurreko Kontseiluan ere kide izan zena.

Erakundearen egitura berria Ekonomia eta Finantzen zuzendaritzarekin osatzen da, zeina Josu Mugarrak gidatuko duen, aurreko zuzendariak erretiroa hartu ondoren.

### EROSKIKO ZUZENDARITZA



#### EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria  
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

[comunicacion@eroski.es](mailto:comunicacion@eroski.es)

#### EROSKI – PRENTSA BULEGOA

##### Consejeros del Norte

JOANA G. LANDAZABAL  
EDURNE IZQUIERDO

Tel.: 944 158 642

Online prentsa aretoa